

LIFE AIAKO HARRIA PROIEKTUA: KUDEATU BERRESKURATZEKO

Marta Olalde

LIFE Proiektuaren Koordinatzailea

LIFE AIAKO HARRIA PROIEKTUA

LIFE programa Europako Batasunaren ingurumen-politikak bultzatzeko finantzaketa-tresna da. Programa honen bidez, ingurumen alorreko ekimenak diruz laguntzen dira, espezie eta habitat naturalen zaintzari dagokionez, lorpenak ikusteko aukera ematen duten proiektu jakinak gauzatzeko fondoak jarritz.

Gipuzkoako Foru Aldundiak (Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusiaren ekimenez) 2005eko deialdian LIFE AIAKO HARRIA proiektua aurkeztu zuen beste 182 proiektuekin batera, Europa mailan onartutako 54 proiektuen artean 6.a gelditu zelarik.

NATURA 2000 SAREA GIPUZKOAN

Natura 2000 Sarea Europako sare ekologikoa da, habitat naturalak eta basa fauna eta landaredia zaintzeari buruzko 43/92 Zuzentaraua edo Direktibaren ondorioz sortua. Sarearen helburua da, zenbait habitat natural mota eta interesekoak diren animalia eta landare espezieak eta horien banaketa naturaleko habitatak kontserbazio-egoera egokian mantenduko direla edo, behar izanez gero, lehengoratu direla bermatzea.

Euskal Herrian azken urteetan ahaleginak egiten ari dira interes komunitarioko habitat eta espezieen inbentarioak egiteko, Habitat Zuzentzarauaren irizpideei jarraiki.

Gaur egun, zehaztuta dago Natura 2000 Sarea Gipuzkoan, eta bere barne hartzen ditu guztira 40.000 ha-ko azalera duten 18 espazio, hau da, lurraldearen % 20a.

AIAKO HARRIA: PARKE NATURALA ETA GKL

Aiako Harria Parke Naturala Pirinioetako inguruko mendietan kokatzen da, Irun, Oiartzun, Errenteria, Hernani eta Donostiako udalerrietan,

eta 6.779 ha-ko azalera du. Parke Naturalaren % 80a jabetza publikokoa da eta gainerako % 20a pribatua.

Aiako Harriko granito masa ikusgarria Euskal Herriko aberastasun geologiko handienetako bat da. Bertako baso zabalak espazio natural horren nortasunaren beste ikur bat dira. Udalen mendietako kontsorzioen bidez, konifero asko eta asko landatu ziren. Bertako espezieak dituzten baso interesgarriak ere badaude, hala nola, Endarako harizti-ameztia, Oielekuko pagadia eta Añarbeko pagadi-hariztia. Azken baso honek, gainera, inguruetako naturaren beste altxorra babesten du: URA. Oso garrantzitsua da, Gipuzkoako biztanleen erdiak mendi horietatik datorren ura jasotzen baitu, Añarbeko urtegiaren bitartez batik bat, baina baita Parke Naturaleko beste txoko batzuetan dauden beste hartune batzuen bitartez ere.

Garrantzi Komunitarioko Lekua (GKL)

Aiako Harriko GKLan, interes komunitarioko 16 habitat mota kartografiatu dira, azalaren % 24a inguru hartzen dutenak. Eta badakigu interes komunitarioko 38 espezie daudela (2 ugaztun, 28 hegazti, 2 arrain, 4 ornogabe eta 2 landare baskular).

Bereziki aipatu nahi dugu *Soldanella villosa* landarea, mundu osoa kontuan hartuta ere, Bizkaiko Golkoan soilik aurki daitekeena, kostaldeko lurraldeetan zehar banatuta, Kantabriako mendietatik Akitaniara. Aiako Harriko mendietan, hain zuzen ere, aurki daiteke gehienbat.

Ugaztun bat, muturluze piriniarra, ere aipatu nahi dugu, espazio honetako animaliarik esanguratsuenak baita. Espezieak bizi duen egoera aztertu nahi da proiektu honetan, baita espezieak iraun dezan bermatzeko neurriak hartu eta, beharrezkotzat jotzen bada, gerora begira espeziea berriz sartzeko programa bat antolatu ere.



LIFE AIAKO HARRIA PROIEKTUA: FITXA TEKNIKOA

Aurrekontua guztira: 2.260.318 euro:

- % 50a Europako Batzordeak finantzatuko du (1,13 milioi euro)
- Beste % 50a, parte hartzen duten beste eragileek finantzatuko dute (onuraduna, bazkideak eta finantza-kideak)

Sailen arabera banatuko da:

- A. Ikerketak eta jarduerak prestatzea: 124.000 €
- B. Lursailak erostea: 310.000 €
- C. Espazioa kudeatzeko lan puntualak: 1.359.570 €
- D. Espazioaren aldikako kudeaketa egitea: 108.426 €
- E. Gizartea sentsibilizatzea eta emaitzak zabaltzea: 214.926 €
- F. Proiektuaren funtzionamendua: 143.396 €

Proiektuak 4 urteko iraupena du; 2005eko urriaren 1etik 2009ko irailaren 30era. Onuradun zuzena Gipuzkoako Foru Aldundia da, Mendietako eta Natura Ingurunekeo Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, hau da, erakunde sustatzailea eta finantza-kide nagusia izan denaren bitartez.

Hasieratik proiektu amankomun honekiko interes handia erakutsi duten bazkide eta finantza-kideak hauek dira:

- Errenteriako Udala
- Hernaniko Udala
- Oiartzungo Udala
- Irungo Udala
- Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza
- Basoa Fundazioa
- Naturgintza Fundazioa

LIFE AIAKO HARRIA: LAN ILDOAK

Erakustaldi eta zabalkunde izaera izango duen proiektu hau aurrera eramanez, administrazioek Natura 2000 Sareko espazioen kudeaketan saio esperimentalak egin ahal izango dituzte eta espazio horretan parte hartzen duten aktore ezberdinen arteko lankidetzak sendotuko da (jabeak eta kudeatzaileak).

Habitat naturalak eta bertako espezieak zaindu eta berreskuratzeko kudeaketa aktiboa garatu nahi da. Proiektuaren dinamikak lau jarduerara ildo nagusi izango ditu:

1. Baso kudeaketa berritzailea
2. Interes komunitarioko habitat naturalak berreskuratzea
3. Interes komunitarioko espezieen iraupena bermatzea
4. Zabaltzea, sentsibilizatzea eta koordinatzea

1. Baso kudeaketa berritzailea

- Oielekuko pagadi motza berreskuratzeko lanak: birsortze naturala, zuhaitz eta zuhaixka espezieak ugaritzea. Landare eta animalien beste komunitate batzuetan lan hauek izandako eraginaren jarraipena egitea.
- Baso teknikekin esperimentatzea, Añarbeko pagadi-hariztiaren egiturazko konplexutasuna areagotzeko. Fauna-biodibertsitatearen adierazle diren espezieek jasandako eraginaren jarraipena egitea.
- Errenteriako Añarbeko baso-berritzeetan, aireko kable bidez ateratze-teknikak erabiltzea.
- Añarbe ibaiaren arroko zenbait ibilguntako ibaiko habitatetan egiturazko konplexutasuna areagotzeko lanak. Materia organikoaren atxikitze tasak izandako eraginaren jarraipena egitea.

2. Interes komunitarioko habitat naturalak berreskuratzea

- Garrantzi Komunitarioko Lekuari egokitutako lanen eskalak dituzten berreskuratzeko-plan bereziak egitea.
- Arian-arian GKLan dauden insignis pinuak eta haritz amerikarrak kendu eta, haien orde, pagoak eta haritzak jartzea.
- Urdaburun, pixkanaka-pixkanaka konifera eta hostozabalen landaketa mistoa, pagadi azidofilo bihurtzea.
- GKLan berreskuratzeko pegoen zein haritzen habitatetako landaredi lehiakidea kentzea.
- GKLari lotutako biodibertsitatea areagotzeko, galiziar-portugaldar hariztiak eta pagadi azidofiloak hobetzeko lanak egitea.
- Irungo Udalak udalerriko lursail pribatuak erostea, epe luzera GKLko habitat naturalak berreskuratzeko helburu orokorrean txertatzeko.

3. Interes komunitarioko espezieen iraupena bermatzea

- *Soldanella villosa*: Ubideen ertz bakoitzean 20 m zabaleko babes zerrenda ezartzea, landare hau bizi den ibai-habitata babesteko. Euskal eta kantabriar lurraldeetako landare endemikoa.
- *Trichomanes speciosum*: Iratze subtropikal hau bizi den ibaiko habitata zaintzea.
- *Galemys pyrenaicus*:
 - Muturluze piriniarra izeneko ugaztunen habitata aztertzea.
 - Espeziearen mehatxurik handienetako bat kentzea: presak. Zehazki bi presa kenduko dira, ondoren bertako habitata berreskuratzeko.
 - Tornola erreka gutxieneko emari ekologikoak berrikustea.
- GKLrako interes komunitariokoak diren ornogabeen aniztasuna aztertzea, bereziki: *Lucanus cervus*, *Rosalia alpina*, *Cerambyx cerdo*, *Limoniscus violaceus*, *Osmoderma eremita*, *Cucujus cinnaberinus* eta *Elona quimperiana*. Espezie horiek basoaren heldutasun goeraren adierazle

dira, euren bizitzako faseetakoren bat bete ahal izateko, hiltzen ari diren edo hilik dauden zuhaitzetako egur zaharra edo hila behar baitute.

4. Zabaltzea, sentsibilizatzea eta koordinatzea

Atal honetan biltzen dira, proiektuaren eragile guztiak helburu amankomun baten alde koordinatu eta lan egin dezaten bideratutako ekimen guztiak, baita esperientziak eta emaitzak zabaltzeko ekimenak ere. Beste zenbait eginbehar: parte hartuko duten eragile bakoitzarekin hitzarmenak sinatzea, proiektuan zehar prentsaurrekoak ematea, bereziki proiektuaren inguruko web orria aurrera eramatea www.lifeaiakoharria.net, antzeko gaietako aldizkarietarako (Euskadi Basogintza, Sustrai, Quercus eta herri aldizkariak) dibulgaziozko artikulua egitea, informazioko seihilabetekariak, lekuetara bertaratzeko proiektuko ekimenen aurrerapenak ikusteko, dibulgazio materiala sortzea (egurrezko kartelak, erakusketa ibiltaria, triptikoak, horma-irudiak, dibulgaziozko koadernoak, unitate didaktikoak eta dibulgaziozko amaierako txostena), jardunaldi teknikoak antolatzea eta nazio mailako kongresu zein jardunaldietara joatea.

